

Kanalak

Merkataritzan, banaketa-kanala ekoizle batek bere produktu edo zerbitzuak **kontsumitzailearen** esku jartzeko erabiltzen dituen bitarteko eragileen multzoa da, **bitartekari** izenekoak.

Gure kasuan **banaketa-kanala zuzena** da, gu geuk (ekoizleak) produktua kontsumitzaileari zuzenean eskaintzen diogulako. Honen abantaila handiena kostu gehigarriak ekiditzearena da, bada, ez dugu beste enpresarik azpikontratatu behar banaketa egiteko eta enpresen eta eroslearen arteko tirabirak ekiditzen ditugu. Bestalde, honen bitartez gure diru sarrerak gora joko luketeen, gure banaketak ez baitu kostu gehigarririk suposatzen.

Bestetik, gure zerbitzuaren helarazte modu nagusia digitala dela esan dezakegu, hau da, bezeroak, app-aren bitartez egiten du bere zerbitzuaren eskaera. App-a instalatzeko, mugikor edo telefono bat beharrezkoa da. Bertan, Play Store erabilita, bezeroak hor instalatzeko aukera izango du, guztiz dohainik.